

---

 A I T A
 

---




---

 O N A I N D I A
 

---

## ARANA-GOIRI'TAR SABIN, OLERKARI

(«Mendiko negarra»)

Artista danak bere nortasunetik zerbait laga oi dau osotzen ditun lanetan. Eta zakur-senik barik be, laster igarten da, irakurriz, nor nor dan eta, poeta baten lanak irakurriz, zelako poeta dan; ez, ontarako ez daukagu zetan urriñegi joan bearrik. Semeak aitari ots-egiten, ezta?

Arana'k 32 olerki ditu. Orreitatik errez jakin leikegu egiazko olerkari, poeta danetz. Oraintsu, aurtan abandotarraren omenez ospatuko zan Olerki-egunaz gogoratzean, aren olerkiai buruzko eritxia eskatu neuzon euskal idazle trebe bati, ta onek bertatik erantzuna: «Olerkari exkaxa» Nik ez neuke ain arin olako erantzunik botako. Gaur alan be egiñak gagoz edu orretako erantzunak bala-bala zabaltzen.

Arana'ren edozein olerkitik, baiña, laster atara geinke aren oler-sen bizi argia. Aitaturiko 32'tik bat aztertuko dogu emen: «Mendiko negarra». Onena daualako? «Lenago il!» ta besteak, eurrez ditu onakoak. Baiña auxe guk aztertuko.

Poetak ez gitxitan erritar olerkia ikasi, aztertu ta ondoren euren olerki lanak olakoetan oiñarritu izan dauskuez. Uka-eiña dozu Arana'ren oler-sena. Alan be, aren poesi-lanik geienak, orrelaxe, erri-kantu doiñutsuetan indartuta egin zituan: erriko abesti bati oiña entzindurik osotuak dozuz poesi-lanok, geienak beintzat. Europar literaturako poetarik aipatuena be bardin jokatu dabe, azken urteotan iñoizkorik geien.

«Mendiko negarra» deritxon au erri-kanta ezagunean zurkaiztua dago. Gure lurrean asko dira, asko, doiñu samurrezko kantak; auxe bat:

*Ai, ori begi ederra!  
Iduritzen zait eperra!  
Gauza oberikan, zer da?*

Izki (letra) ta musika, gozotasunaren betea ez ete dakarskue aapaldiok? Doiñu auxe aukeratu eban Arana'k bere illots sentikorrenari aragia ezarteko.

Aberria begi-tarteratu yako iñoren mende, buru-jabetasun barik, lenago iñoiz ikusi etzan lez. Eziña yakon bizirik irautea. Eriotza ebilkion zemaikor, garraxi latzez. Eta onetara dagi «Batzutakua» deritxon asierako leloa:

*Ene Aberri laztana,  
jausi zara Erbestepian.  
Obia erijotza da!*

Ondoren datoz amabost aapaldi (estrofa). Lenago ez eben Aberri laztan au keltarrak, erromarrak, ez erri basatiak azpiratu. Orain, oster, txarrena egin yako jabe. Au lotsaria!

Aberrija, nik  
ikusi zindun  
iñoiz erbestek  
bezauta!

Orain guztirik  
txarrena  
zeure jabe  
eta jauna da.  
Zelan lotsaz il etzara!

Antxiña Bizkaia'k Jainkoa eban bakar-bakarrik Nausi ta Jabe: Urtzi; Onen esanera ebillen gizaldiz gizaldi. Entzun:

Antziñan zeure  
Jaun nagositzat  
Goikua zendun  
bakarrik.

Orain erbeste  
dongerik  
dongienak  
zagoz beturik.  
Il baño ezta oberik!

Bat-batetan euzko mendi, baso, aran eta onakoak, au da, Euzko-lurra jarten yakoz gogoan, dardarka. Baita au be: euskal sukaldetik lenago, ke zuria iduri, eskari ona, Urtzi'ri egiña, gorantz joian. Gaur...!

Zeure basotik  
atzo igoten zan  
ezkari ona  
zerura.

Gaur erdeldunak  
sartuta,  
aizea emen  
birauz bete da.  
Zelan ondiño il etzara!

Edesti-aurretik, eta gero luzaro, erriak atondu oi zituan alkar arteko bizitza, eguneroko jokabidea ta eginkizunak, aurrerakuntzak zuzendu ta gauzak obetzeko ziran legeak. Istori-orrialdeak nastau nai izan arren, egia auxe da: Bizkaiko erriak berak egin eta zaindu zituan aspaldi luan bere bizi-jokabidea osotzeko ziran legeak: Gernika'n, Abellaneda'n, Gerediaga'n... Arana'k onela:

Len zeurentzako  
lagi guztijak  
zeuk egiten oi  
zenduzan.

Gaur motzak  
España'n  
zeu salduta  
zagoz an bertan.  
Zegaitik iltzen atzaran!

Legelariak, joan urteetan, maite eben erria; zugatz-peetako batzarretan erriaren ona billatzen zan bakar-bakarrik, sendi, etxe, mendi, erreka, itxaso, artzain, nekazari, arrantzale ta enparauen ona ta aurrerapidea. Etzan esateko diru loigarriaren zalekeririk. Gaur olan ete? Entzun:

Areitz-azpijan  
len bizkaitarrak  
Batzarrak eiten  
ebezan.

Gaur Aretxeko  
gania  
danak dabiltz  
zoli dirutan.  
Ta, bizi zara zeu olan!

Ertzain ziran len bere semeak; gaiztakeririk ba'zan, zigorra erabilten zan gaizkiña zentzatzeko, zentzunera ekarteko. Gaur ez da olan: etsaiak berak gaur jarri dauskuz zaiñak gu jagon gagizen. Adi:

Zeure semiak  
zenduzan atzo  
zeure buruba  
zaintzeko.

Arerijuak  
oraingo  
eruaten  
dautzuz galtzeko.  
Eta, etzara il ondiño!

Euskalerrriak, nun-nai ta nainoz, ekandu onak izan dauz etilka ta maitasun maillan; iñoiz iñor, geiegikeriz edo, ekandu zindo orrein ausle ba'zan, erriak zituan legeak, Foruan etozanak ain zuzen, eta eurok erakutsi oi eutsen olakoari zuzenezko bidea. Gure asabai zoriona legeak eta ekanduak ekarri eutsen. Baiña gaur...

Ekandu onak  
asabeari  
zoruna emon  
len eutsen.

Ara motzenak  
gaur emen  
zeure bijotz  
garbija usteltzen.  
Ta zeu, Ama, etzara iltzen!

Gure abenda (erraza), abenda zarra da. Gaur jakitun askok lerrenak eta nekeak jasan dabez bai euzko-endari ta bai euskal izkuntzari jatorria billatzen eta aurkitu nairik: batek, oraintsu, an Kaukaso'n, Georgia aldean idoro ei dautso bikia. Baiña orrek be, olako askok lez, aldia ta ezkurra alperrik eralgi, besterik lortuko ete? Gure erraza beti dogu misterio uts; gure izkuntza, barriz, ezkutu biurri. Nor ete orrein leza-sakonera jasteko lain? Aratz garbia zan euzko abenda, ta olaxe iraun izan du oraintsu arte. Gaur ba-dau nasterik, odolean be. Odol loitan itxiak gara!

Abenda zarra  
zeure semiak  
irauten eben  
len utsik.

Arrotzakin gaur  
nastaurik,  
zeurentzako  
ezta odolik.  
Zelan etzara il bertotik?

Len gogor-egiten yakon etsaiari. Gogora Bizkai'ko forua, gogora Orduña gaineko Malato zugatza: maite dana sendo da gordeten. Maite-gar barik, zabarkeriz bazterrak loitzen. Len etzan odol-nasterik; gaur euzkotar alabak errez ezkontzen yatzuz odol pozoituarekin.

Len zeure seme  
eta alabeak  
ezesten eben  
arrotza.

Españarrakin  
batuta,  
gaur ezkontzen  
dabe berbera.  
Oraindik zeu bizi zara!

Izkuntza dau gizasemeak doairik obe ta gaillenena. Guk euskera dogu ele garden; aurretikoak itxi euskuen, euren asaben asabak jakituri

itzalez sortua, menderen mendetan mintzatua, itz-egiña. Guk be, geure mortasunari uko-egin ezikan, etxean, kalean, nainun eta noiznai mintzatu ta ondorengoai erakutsi bear dautsegun izkuntza eder azarria. Berau ezetsi naiz galdu daroan euskalduna, ez ete da etoi endekatua?

Len euzkerea  
zeuk belarrijan  
zetzuban biar  
zan legez.

Euzkeldun garbi  
bat berez  
ezin da gaur  
idoro iñun bez.  
Zelan etzara il zeu lorrez!

Jainkoa ta lurra; Lur-gaiñean gizona, Euzkadi'n euskalduna, lege zar, izkuntza zar, ekandu berezi, kanta gozo ta dantza bipillez ornidua. Lagi Zarra ta Jainkoa, euskalduna fedez jantzia, izate bi baten oretuak; kendu Jainkoa ta gure legeak ez dabe indarririk. Gure etsaiak, oster, Jainkoa kenduz lege zarrak izpi-egin eta saportu ditu, abenda, euskera ta dana birrinduta itxirik.

Goiko Jaun ona  
kendu dautzunak  
Lagi Zarrak dauz  
suzitu:

Abendea be  
il dautzu  
ta euzkera  
dana zatitu.  
Ta, olan bizi nai dozu!

Gurutzea zan beñola, zeruan dizdizka. Dizdiz arek gure Areitz deuna eban osto muskerrez jazten. Gaur ezta orrela, tamal aundiz! Areitzaren adarretan ezta azirik, ez Gurutzerik.

Eztakust orain  
zeure zeruban  
Gurutz Zuriija  
argirik;

Ez zelan bez  
azirik  
Areitz Deuna  
orleiz jantzirik.  
Ta, bizi zara billosik!

Ai, baltz agiri da Gurutz zuria! Ubel ta laru, orimiñak joa Areitz orlegia. Len zanetik, ez yako ezer geratu. Aberri!, il zaitez!

Gurutz Zuriija  
baltzitu da ta  
Areitz orleya  
oritu.

Geratu ezer  
etxatzu:  
seme onik,  
Ama, eztozu.  
Il, Aberrija, zakigu!

Eroan eziña da! Ainbeste esker gaizto! Itzear ipiñi dau Aberria,  
seme onik ezak. Eta obi ondora elduaz, negarrari emon dautso samiña,  
ren samiñez. Odolaren berorik ez-ta, itzali yako arimea:

Obi-onduan  
negarrez zakust  
miñez beterik  
gaxoa!

Amatau yatzuz  
gogua  
eta odol  
orren berua.  
Ta, Ama, ondiño il etzara!

Olerkariak, ama bizirik oindiño, eztau negarrez ikusi gura; negarrak  
irribarrea sortzen arerioaren ezpanetan. Eroan eziña yako au Arana'ri;  
ez, olakorik ez! Aberria, ozt-oztan illotzik, azken zotinka, ta etsaia ba-  
rrearen pozetan... Ez, ez, ori ez! Etsipenaren gaillurretik au diñotsa:  
«Ama, laster il zaitez!»

Ez egin negar;  
etzaut, Ama, nai  
negar-egiñik  
zu ikusi:

zeure negarrok  
motzari  
eragiten  
dautso barre-irri.  
Il, Ama, laster! Il zadi!

Illeta kanta samurra, adimen-zituz ugaria ta biotz zauskadaz betea!  
1896'an osotu eban, eta 1897'ko garillaren 25'an, «Baserritarra» eri-  
txon aldizkarian argitaratu euskun.

Amabost aapaldi ta leloa daukaz olerki bero onek. Aapaldi bako-  
txak bederatzi bertso daroaz: bost bost silabadun, iruko bi, lauho bat  
eta zortzidun bat. Laugarrenak, seigarrenak, zortzigarrenak eta bedera-  
tzigarrenak daroe oskidetasun bardiña, ots, rima. Izki bikotxak eta si-  
nalefak, arreta aundiz zaintzen ditu; eztau betegarririk, ezta izpirik be-  
itz bakotxak bere lekua beteten.

Mendiko negarra dala diño egilleak; eta izan be, mendian osotua  
ezpa-da be, mendi-erpin batetik euskal-bizitza osoa ikusi daroan olerkari  
ernaiak egiñiko lana dogu. Ezin esan, beraz, zentzun aunditan Arana  
poeta exkaxa dogunik.

Aita Onaindia